

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Erandioko Udala**

**Ayuntamiento de Erandio**

**2020**





## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>LABURDURAK .....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA .....</b>	<b>8</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	8
<b>III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....</b>	<b>9</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	9
III.2 Langileria .....	10
III.3 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	10
III.4 Kontratazioa .....	10
III.5 Beste batzuk.....	11
<b>IV. FINANTZAREN ANALISIA .....</b>	<b>12</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK.....</b>	<b>15</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>17</b>
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	17
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	17
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	19
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	20
A.5 Langileen gastuak.....	21
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	23
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	24
A.8 Inbertsio errealak eta ondare sarrerak .....	25
A.9 Aurrekontuko zordunak.....	26
A.10 Eragiketa ez-aurrekontukoak .....	27
A.11 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	28
A.12 Kontratazioa.....	30
<b>ALEGAZIOAK.....</b>	<b>33</b>



<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>41</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>43</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>	<b>44</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	44
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	44
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>45</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	45
III.2 Personal.....	46
III.3 Transferencias y subvenciones concedidas .....	46
III.4 Contratación .....	46
III.5 Otros .....	47
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>48</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>51</b>
<b>ANEXOS.....</b>	<b>51</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	53
A.2 Presupuesto y contabilidad .....	53
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	55
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	56
A.5 Gastos de personal .....	57
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	59
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas .....	60
A.8 Inversiones reales e ingresos patrimoniales.....	61
A.9 Deudores presupuestarios.....	62
A.10 Operaciones no presupuestarias .....	63
A.11 Actuaciones urbanísticas y planeamiento .....	64
A.12 Contratación .....	66
<b>AIEGACIONES .....</b>	<b>69</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
FA	Foru Araua.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HABE	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
KIB	Kontsumitzailearentzako informazio-bulegoa.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki entitateak.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Erandioko Udalaren 2020ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Udalaren aurrekontuaren likidazioa ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Erandioko Udalak 24.530 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta udalaz gaindiko honako entitate hauetan parte hartzen du:

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa).
- Bizkaiko Garraio Partzuergoa (bidaiarien garraio publikoa).
- Haurreskolak Partzuergoa (haurtzaindegien kudeaketa).



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### KONTRATAZIOA

1. 2009ko apirilean, Udalak zortzi urtetarako bide-garbiketa eta HHS jasotzeko kontratua esleitu zuen, luzatzeko aukerarekin. 2020an, kontratuaren indarraldia amaituta, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu zuen, eta ekitaldi horretan egindako gastuek (2,6 milioi euro) ez zuten kontratu bidezko estaldurarik (2. espediente, A.12an).
2. 2020an, udalekuak antolatzeke zuzeneko dirulaguntzak eman zitzaizkien bi elkarteri, guztira 39.500 eurorenak, eta Osoko Bilkurak aurrekontuko transferentzien eta dirulaguntzen eranskina aldatzea onartu zuen. Prestazioak kontratu-izaera duela uste da, eta dagokion lizitazio-prozedura izapidetu beharko litzateke; prozedura hori, zenbatekoa kontuan hartuta, sinplifikatua izan ahalko litzateke.

Epaitegi honen ustetan, Erandioko Udalak, 1 eta 2 paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2020ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak ez ditu onartu 2019 eta 2020ko ekitaldietako Balantzea, Emaizten Kontua eta Oroitidazkia, ez baita ekitaldi horietako Kontu Orokorra formulatu (21/2003 F Aren 62. artikulua, abenduaren 2koa, BLHko Aurrekontuei buruzkoa).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan deskribatutako akatsa salbuetsita, Erandioko Udalaren kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2020ko aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa.



### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalaren aurrekontu plantillak ez ditu kreditu zuzkidurak oinarritzko ordainsari, lanpostu mailako osagarri eta berariazko osagarriaren arabera antolaturik zerrendatzen.
- Alkatetza-dekretu bitartez onartutako kredituak aldatzeko bi espediente Osoko bilkurak onartu behar zituzkeen, askotariko programa funtzionalen arteko transferentziak direlako eta bariazio metatuek hasierako diru-izendapenen % 25 gainditzen dutelako. Horietako batean, gainera, aurrez gehitu ziren ordainketa-kredituak murriztu dira.
- Udalak langileek Elkarkidetzari egindako ekarpenengatik nominan egindako kenkariak aurrekontuetan sarrera modura kontabilizatzen ditu, (ikus A.3), eta aipatutako erakundeari egindako ordainketak, gastu gisa; ordea, adierazitako kontzeptuak ez dira aurrekontukoak.
- Udalak kalkulaturako 2020ko ekitaldiaren itxieran atxikitako gehiegizko finantzaketak 465.835 euro jasotzen ditu, Erandioko udalerriak 2016tik 2020ra bitarteko ekitaldietan gizarte-zerbitzuen zorroaren ezohiko funtsean duen partaidetzari dagozkionak; horiek Gastu orokorretarako diruzaintza geldikin izaera izango dute.
- Udalak emandako informazioak ez du uzten zehazten 2020ko ekitaldiaren itxieran jasotako fidantzen eta gordailuen kontuaren saldoaren osaera, 634.873 eurorena (ikus A.10). Aurrekontukoak ez diren gainerako hartzekodunen saldoak berrikusita, ikusi da saldo horietako batzuk (352.202 euro) aurrekontuko diru-sarrera gisa erregistratu beharko liratekeela, ez baitagozkie obligazio galdagarriei. Komenigarria litzateke aurrekontukoak ez diren hartzekodunen kontu guztiak aztertu eta araztea.



### III.2 LANGILERIA

- LZ horrek 18 lanpostu jasotzen ditu lan arloko legediari meneratuak eta horiek, ezargaria den araudiaren arabera, karrerako funtzionarioentzat gordeak behar lukete egon.
- 2020ko ekitaldi itxieran bitarteko 23 funtzionario eta aldi baterako lan kontratupeko 4 langile zeuden, LPZn aurreikusi gabeko egiturazko beharrianetarako.
- Lanpostuen zerrendak ez ditu jasotzen lanpostu jakin batzuei esleitutako berariazko osagarriaren puntu gehigarriak, eta, horregatik, berariazko osagarri gisa ordaindutako ordainsariak aipatu LZk jasotzen dituenak baino 351.241 euro handiagoak dira. LZn jaso gabeko berariazko osagarriaren puntu osagarrietako batzuk 2020ko ekitaldian bertan onartu dira (ikus A.5).

### III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Dirulaguntza izendun batean eta zuzeneko beste batean (81.315 euro guztira) ez dago egiaztatuta onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela.

### III.4 KONTRATAZIOA

#### Kontratazio-espedienteak (ikus A.12)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zazpi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Guztira 6,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu baten pleguek (4. espedientea) esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen dute, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe.
- Guztira 148.420 euroan esleitutako kontratu baten pleguek (7. espedientea) ez dute aurreikusten parte-hartzeko eskaintza eta eskabideak baliabide elektronikoko bidez aurkeztea, eta ez dago hori arrazoituko duen berariazko txostenik.
- Milioi 1 euroan esleitutako kontratu batean (6. espedientea) kontratazio-mahaia ez zen balio osoz eratu, kontu-hartzailea ez baitzegoen bertan.
- 7,9 milioi euroan esleitutako hiru obra kontraturen esleipen-ebazpenek (4., 5. eta 6. espedienteak) ez dute ezargaria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen.
- 6,3 milioi euroan esleitutako kontratu batean (3. espedientea), enpresa esleipendunak ez ditu idatziz betetzen datu pertsonalak tratatu ahal izateko beharrezko konpromisoak, jarduerari ekin aurretik.
- 6,6 milioi euroan esleitutako kontratu baten esleipen-ebazpena (4. espedientea) proposamenen irekieraz geroztik urtebete baino gehiago igarota dela ebatzi da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Kontratu baten behin betiko bermearen zenbatekoa kalkulatzeko (7. espediente), guztira 148.420 euroan esleitutakoan, urte-sari bakar bat hartu da kontuan eta ez kontratua egikaritzeko epea osotara, bi urte, alegia.
- Kontu-hartzailea ez zen obra-kontratu baten materiala jasotzera joan (1. espediente), 6,4 milioi euroan esleitutakoa.

### **Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastua (ikus A.12.2)**

- Kontratu txikiaren prozedura bidez gauzatutako kontratazioak aztertzean ikusi dugu 227.227 euro egin duten zazpi prestazio gutxienez prozedura sinplifikatu laburtu bidez izapidetu behar ziratekeela.
- Berebat, bi zerbitzuri dagozkion 43.226 euroren gastuek ez dute kontratu bidezko estaldurarik, dagozkien kontratuen indarraldia amaitua delako.

## **III.5 BESTE BATZUK**

### **Gardentasuna**

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, aurrekontuei, urteko kontuei eta hitzarmenei eta kudeaketako mandatuei buruzko datu gaurkotuak.

### **Inbentarioa**

- Udalak soilik ondasun higiezinari eta ibilgailuei buruzko inbentario bat du, 2018ko otsailaren 22an onartu zena; ordea, gerora ez da egin haren urteko nahitaezko zuzenketa.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2018(*)	2019(*)	2020	2018	2019	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	15.534	16.971	13.827	641	697	564
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	17.773	19.473	17.566	734	800	716
Ondare sarrerak (5. kap.).....	133	205	136	5	8	5
<b>A. Sarrera arruntak</b> .....	<b>33.440</b>	<b>36.649</b>	<b>31.529</b>	<b>1.380</b>	<b>1.505</b>	<b>1.285</b>
Langile-gastuak (1. kap.).....	12.917	13.679	13.948	533	562	569
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	16.956	15.913	15.881	700	653	647
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	1.600	1.698	1.541	66	70	63
<b>B. Funtzionamendu-gastuak</b> .....	<b>31.473</b>	<b>31.290</b>	<b>31.370</b>	<b>1.299</b>	<b>1.285</b>	<b>1.279</b>
Aurrezki gordina (A-B).....	1.967	5.359	159	81	220	6
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	3	1	-	-	-	-
<b>Emaitza arrunta</b> .....	<b>1.964</b>	<b>5.358</b>	<b>159</b>	<b>81</b>	<b>220</b>	<b>6</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
<b>Aurrezki garbia</b> .....	<b>1.964</b>	<b>5.358</b>	<b>159</b>	<b>81</b>	<b>220</b>	<b>6</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	908	1.560	658	38	64	27
Jasotako kapital transferentziak (7. kap.).....	279	3.800	4.019	11	156	164
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	3.120	7.619	5.649	129	313	230
- Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
<b>Kapitalezko eragiketen emaitza</b> .....	<b>(1.933)</b>	<b>(2.259)</b>	<b>(972)</b>	<b>(80)</b>	<b>(93)</b>	<b>(39)</b>
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	31	3.099	(813)	1	127	(33)
Diruzaintza geldikina.....	4.656	7.295	6.226	192	300	254
GODG.....	4.296	6.681	5.651	177	274	230
Zorpetzea.....	-	-	-	-	-	-

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2019an % 9 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean, baina 2020an izandako % 14ko beherakadaren ondorioz, aztertutako aldi guztira % 6 inguruko bariazio negatiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera horiek aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 9 igo dira 2019an, baina 2020an izandako % 19ko jaitsieraren ondorioz, aldi horretako bariazio osoa % 11 jaitsi da. 2019an izandako igoera tasen eta bestelako diru-sarreraren bilakaeraren ondorio da; izan ere, zuzeneko zergak 2018ko maila bera dute, eta EIOZren diru-sarrerak % 30 baino gehiago jaitsi dira ekitaldi horretan erregistratutakoekin alderatuta. Adierazitako kapituluaren gehikuntzan eragiten dute bereziki birkokatzeei aurre egiteko kalte-ordainei dagozkien diru-sarrerak (ikus A.10). 2020an izandako diru-sarreraren murrizketari dagokionez, orokorra da, eta covid-19aren pandemiaren ondorioei egotzi behar zaie; nabarmentzekoa da kirol-instalazioetako zerbitzuak emategatiko eta San Jose Egoitzako egonaldiengatik tasei dagozkien diru-sarreraren murrizketa.



- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** Diru-sarrera horiek % 10eko igoera izan dute 2019an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nahiz eta gerora 2020an izandako beherakadaren ondorioz, aztertutako aldiaren guztizko bariazioa apur bat negatiboa izan. 2019an azpimarratzekoak dira Udalkutxaren eta Gizartekutxaren diru-sarrerek izandako bariazioak, aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 10 igo eta % 24 jaitsi baitira, hurrenez hurren; bariazio horiek eragin garbi positiboa izan dute, eta horrek azaltzen du, Lanbidetik jasotako dirulaguntzen igoerarekin batera, ekitaldi horretan izandako bariazio osoa. 2020ko ekitaldiari dagokionez, halaber, bariazioak aipatutako kontzeptu beretan gertatu dira, nahiz eta kontrako zeinua izan, eta horren ondorioz diru-sarrerak nabarmen murriztu dira, nahiz murrizketa hori pixka bat arinagoa izan den gizarte-larrialdietarako laguntzek izandako % 54ko igoeraren ondorioz.

**Funtzionamendu-gastuak:** Ez dute ia bariaziorik izan osotasunean hartuta aztergai izan dugun aldian. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** 2019ko eta 2020ko ekitaldietan % 6ko eta % 2ko igoerak izan dira, hurrenez hurren, eta aldi osoko bariazioa guztira % 8koa izan da. Lehenengo igoerari dagokionez, Lanbidek finantzatutako enplegu-planen bidez kontratatutako langileen kostuak bereziki eragiten du gastuaren igoeran, baita, aplikatutako ordainsari-igoerak ere. Gastuak 2020an izandako bariazioa, nagusiki, azken kontzeptu honi zor zaio (ikus A.5).
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** Gastu hauek % 6 egin dute behera 2019an eta bat dator aztertutako aldiaren murrizketa osoarekin, izan ere 2020an ia ez da bariaziorik izan. Gastuaren murrizketa batez ere bide-garbiketako zerbitzuari dagokio, izan ere 2018ko ekitaldian kontabilizatu ziren ekitaldiko gastuez gain, 2017ko ekainetik abendura bitarteko aldiko fakturak, 991.132 eurorenak. Eragin hori kenduz gero, 2018ko eta 2019ko ekitaldietako gastuaren bariazioa ia nulua da.
- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** Gastu horiek 2019an % 6 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz 2020an % 9 jaitsi diren; honenbestez, aztertutako aldian % 4 inguruko bariazio negatibo garbia izan dute. 2019an izandako igoeran eragin berezia izan dute gizarte larrialdiko laguntzek. 2020ko ekitaldian, kontzeptu horrek eragindako gastuek gora egin dute berriro, eta are gehiago, merkataritza-sektorea dinamizatzeko dirulaguntzek, baina gehikuntza horiek berdindu egin dira beste laguntza batzuk murriztearekin, batez ere jai-batzordeei eta kirol- eta kultura-elkarteei zuzendutakoak.

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitude horiek bat datoz, ez baitago zorpetzerik eta saldoa positiboa baita aztertutako aldiko hiru ekitaldietan, nahiz eta nabarmen murriztu den aldi horretan zehar, 2018ko ekitaldian sarrera arrunten % 6 izatetik 2020an sarrera arrunten % 1 izatera igaroaz.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**Kapital-eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboak izan ditu aztergai izan diren ekitaldi guztietan eta nahiz aztertutako aldian sortutako aurrezki garbiak estaltzen dituen kapitalezko eragiketen aipatutako defizitak, ez da gauza bera gertatzen 2020ko ekitaldia soilik aztertzen badugu.

**Eragiketa ez-finantzarioen emaitza:** Igoera esanguratsua izan du 2019ko ekitaldian, baina balio negatiboa izatera pasa da aztertutako ekitaldietatik azkenekoan.

**GODG:** Bilakaera positiboa izan du aztertutako aldian, % 32koa alegia, nahiz 2020an % 15 egin duen behera aurreko ekitaldiaren aldean.

**Zorpetzea:** Ez dago zorpetzerik aztertutako ekitaldietarik batean ere.

**Ondorioa:** Udalak egoera ekonomiko osasuntsua du, nahiz eta 2020an magnitude nagusienek nozitu duten kalterik, Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz izan dela esan badezakegu ere.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** 2020ko azaroaren 3ko erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako zerga-arauak etetea erabaki zuen, baina aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko informazioa bidaltzeko betebeharrak indarrean mantendu zituen. Betebehar horiek betetzeko, udal artekaritzak txostena egin zuen eta Udalari dagokionez honako hau jasotzen du aurrekontuaren likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, behin GODG bidez finantzatutako gastuak murriztu ondoren eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastu zenbagarriak behera egin du 2019ko ekitaldiaren aldean.
- 2020ko abenduaren 31n zorrik eza.



## V. URTEKO KONTUAK

### 2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE KITAT.	KOBRA			%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.		KOBR.	GABEA	EGIK.	
1. Zerga zuzenak.....	A.3	7.981	-	7.981	7.697	7.358	339	% 96	
2. Zeharkako zergak.....	A.3	550	-	550	419	221	198	% 76	
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	A.3	6.391	280	6.671	5.711	5.399	312	% 86	
4. Transferentzia arruntak.....	A.4	19.153	451	19.604	17.566	17.447	119	% 90	
5. Ondare-sarrerak.....	A.8	134	-	134	136	136	-	% 101	
6. Inbertsio errealen besterentzea.....	A.11	2.590	-	2.590	658	-	658	% 25	
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	16	3.820	3.836	4.019	3.911	108	% 105	
8. Aktibo finantzarioak.....		10	3.833	3.843	11	11	-	(*) % 110	
<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>		<b>36.825</b>	<b>8.384</b>	<b>45.209</b>	<b>36.217</b>	<b>34.483</b>	<b>1.734</b>	<b>(*) % 88</b>	

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA				OBLIG. AITORT.	ORDAIN.			%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.		ORDAINK.	GABE	EGIK.	
1. Langileen gastuak.....	A.5	14.536	-	14.536	13.948	13.664	284	%96	
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak ....	A.6	17.780	2.273	20.053	15.881	13.617	2.264	%79	
3. Gastu finantzarioak.....		5	-	5	-	-	-	%0	
4. Transferentzia arruntak.....	A.7	1.836	858	2.694	1.541	1.215	326	%57	
5. Kreditu glob. eta bestel. ustekabekoak.....		50	(10)	40	-	-	-	%0	
6. Inbertsio errealak.....	A.8	2.608	5.263	7.871	5.649	5.012	637	%72	
8. Aktibo finantzarioak.....		10	-	10	10	10	-	%100	
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>		<b>36.825</b>	<b>8.384</b>	<b>45.209</b>	<b>37.029</b>	<b>33.518</b>	<b>3.511</b>	<b>%82</b>	

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak.....	A.9	8.009	7	799	7.203
Ordaintzeko dauden saldoak.....		3.835	-	3.780	55
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>				<b>(7)</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide aitortu garbiak.....	36.217
Obligazio aitortu garbiak.....	(37.029)
<b>EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>(812)</b>
<b>EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>(7)</b>
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratzeak.....	200
GODG bidez finantzatutako obligazioak .....	2.076
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>1.457</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
<b>FUNTS LIKIDOAK (A)</b>	<b>(*) 12.648</b>
<b>KOBRAZTEKO DAUDEN ESKUBIDEAK (B)</b>	<b>9.086</b>
Aurrekontu arruntetik (ikus A.9) .....	1.734
Aurrekontu itxietatik (ikus A.9) .....	7.203
Eragiketa ez-aurrekontukoetatik (ikus A.10) .....	149
<b>ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK (C)</b>	<b>7.456</b>
Aurrekontu arruntetik.....	3.511
Aurrekontu itxietatik .....	55
Eragiketa ez-aurrekontukoetatik (ikus A.10) .....	3.890
<b>APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)</b>	<b>(341)</b>
Behin betiko aplikatzeko dauden kobrantzak (ikus A.10).....	341
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)</b>	<b>13.937</b>
Zalantzaszko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.9) .....	(7.711)
Atxikitako finantzaketa-soberakina .....	(575)
<b>GODG</b>	<b>5.651</b>

**ZORPETZEA 2020/12/31n** -

(\*) Ia oso-osorik kontu korranteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 7.777 euro izan ezik.





## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Erandioko Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina eta kultura- eta kirol-jarduerak.

Udalek zerbitzuak zuzenean edo zeharka eman ditzakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2020ko ekitaldirako aurrekontua 2019ko abenduaren 12ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hil bereko 20an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2020ko urtarrilaren 30ean eman zen argitara berriz BAOn.

36,8 milioi euroren hasierako aurrekontua % 23 gehitu zen eta behin betiko aurrekontua 45,2 milioi eurora iritsi zen. Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan Miles de euros				
	KREDITU TXERTAK.	KREDITU TRANSF.	KREDITU GAIKUNTZA	KREDITU GEHIGARRIA	GUZTIRA
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. Gastuak.....	682	(39)	454	1.176	2.273
4. Transferentzia arruntak.....	9	47	277	525	858
5. Kreditu glob. eta bestel. ustekabeak.....	-	(10)	-	-	(10)
6. Inbertsio errealak.....	1.199	2	3.821	241	5.263
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>1.890</b>	<b>-</b>	<b>4.552</b>	<b>1.942</b>	<b>8.384</b>

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak finantzatu ziren Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2019ko ekitaldi itxieran, 3,8 milioi euroren zenbatekoan, eta transferentzia arrunten eta kapitalezkoen bidez, 4,3 milioi euroan. Baita, birkokatzeagatik kalte-ordainei zegozkien sarreraren bidez ere, 280.000 euroren zenbatekoan.

Ekitaldian zehar aurrekontuak aldatzeko zortzi espediente izapidetu ziren, eta horietako bat Osoko Bilkurak onartu zuen, eta gainerako zazpiak Alkatetzaren Dekretu bidez onartu ziren. Hala ere, horietako hiruk, zati batean aurrekontuko transferentzien eta dirulaguntzen eranskinari eragiten ziotenak, Osoko Bilkuraren onespena behar izan zuten aipatutako zatian. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

PROIEKTUA	ZENBAT.
Altzagako azoka zaharra zaharberritzea .....	574
Azterketak eta lan teknikoak: Adineko mendekoak .....	347
HAPO .....	200
Bide publikoak zolatzea.....	145
Beste txiki batzuk.....	624
<b>TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>1.890</b>
Axpeko industri poligonoko mendi-magala egonkortzea (*) .....	3.628
Birkokatze-gastuak .....	280
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	275
Azterketak eta lan teknikoak: Adineko mendekoak .....	93
Beste txiki batzuk.....	276
<b>KREDITU GAIKUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>4.552</b>
Azterketak eta lan teknikoak: Enplegua .....	430
Merkataritza sektorea dinamizatzea.....	433
COVID-19 gaitza dutenentzako laguntzak .....	180
Axpeko industri poligonoko mendi-magala egonkortzea (*) .....	142
Covid-19 gaitzaren aurkako ekintzak .....	141
Beste txiki batzuk.....	616
<b>KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>1.942</b>

(\*) Ikus obra nagusiarri dagokion espedientearen analisisia A.12.1. atalean.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko martxoaren 30ean onartu zen Alkatetzaren Dekretu bitartez. Ekitaldi horretako Kontu Orokorra ez da oraindik onartu.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2020ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerengatik kitaturiko eskubideen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	4.380
TMIZ.....	1.545
HILBIZ.....	330
JEZ.....	1.442
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>7.697</b>
EIOZ.....	419
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>419</b>
Zaborrak bildu eta desegite-zerbitzuaren tasa.....	1.289
San Jose Egoitzan egonaldiengatiko tasak.....	1.205
Estolderia zerbitzuagatiko tasak.....	796
Kanporatzeagatiko kalte-ordainak (ikus A.10).....	567
Kirol instalazioen zerbitzuak emateagatiko tasa.....	325
Enpresa hornitzaileek lurzorua/hegala/lurpearen aprobetxamendu bereziagatiko tasak.....	335
Eguneko zentroetan egoteagatiko tasak.....	228
Elkarkidetzako atxikipenak (*).....	144
Trafikoko isunak.....	137
Musika eskolako ikastaroengatiko tasak.....	126
Beste txiki batzuk.....	559
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>5.711</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>13.827</b>

(\*) Nominan egindako murrizketak langileek Elkarkidetzari egindako ekarpenengatik (ikus III.1 atala).

BFAk Erandioko Udalari ematen dizkio OHZ eta EJZ kudeatzeko, likidatzeko eta ikuskatzeko zerbitzuak, eta bere gain hartzen du aipatutako zergen eta estolderia-zerbitzua emateagatiko udal-tasaren bilketa, borondatezko aldian nahiz premiamendu-aldian, hori guztia izenpetutako lankidetzaren arabera.

Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua ematen du, eta zerbitzuak eragindako gastuak eta sarrerak bere gain hartzen ditu. Halaber, Udalak Partzuergoari laga dio zaborrak jaso eta desegiteagatiko tasa kobratzeko kudeaketa-lana.

Erantsitako koadroan zerrendatutako gainerako zergei, tasei eta diru-sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartua du kudeaketa osoa, eta, gainera, betearazpen-aldiko diru-bilketaren kudeaketari dagokienez, kanpoko enpresa batekin egindako laguntza tekniko-juridikoko kontratu bat dauka. Zerbitzu horren kostua 2020an 153.613 eurorena izan zen (ikus A.6).

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2020ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoengatik kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITAL.
<b>Estatuarenak</b>	<b>84</b>	-
Covid-19tik eratorritako egoeretarako Aparteko Gizarte Funtsa .....	56	-
Itundu gabeko zergetan partaidetza.....	28	-
<b>EAErenak</b>	<b>1.684</b>	<b>4.020</b>
AO: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	591	-
AO: udal jabetzako musika-irakaskuntzako zentroak.....	212	-
AO: Oinarrizko Lanbide Heziketa.....	162	-
AO: Udal jabetzako musika-irakaskuntzako zentroak .....	84	241
AO: Erandiogoikoko San Jose Auzoa urbanizatzeko proiektua.....	-	72
AO: Merkataritzako bulego teknikoak .....	46	-
Sprilur SA: Axpeko poligonoko mendi-magala egonkortzea .....	-	3.673
Lanbide: enplegu-programak .....	277	-
HABE: Udal jabetzako Euskaltegi publikoak .....	228	-
Kontsumobide: KIUB .....	42	-
Beste txiki batzuk .....	42	34
<b>BLHrenak</b>	<b>15.788</b>	<b>(1)</b>
BFA: Itunpeko zergetan partaidetza (Udalkutxa).....	14.644	-
BFA: SAAD eta Gizartekutxa .....	833	-
BFA: Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa.....	101	-
BFA: enplegu-programak .....	134	-
BFA: Gaztedi Txorierrri hitzarmena .....	36	-
BFA: Euskararen erabilera sustatu, hedatu eta normalizatzea.....	32	-
BLHren askotariko beste dirulaguntza batzuk .....	8	(1)
<b>Irabazi asmorik gabeko entitateenak</b>	<b>10</b>	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.566</b>	<b>4.019</b>

Itunpeko zergetako partaidetzari dagokionez, adierazi behar da Udalkutxaren 2019ko eta 2020ko likidazioak, Udalaren aldeko 477.831 euroren eta BFAREN aldeko 875.461 euroren saldoak dituztenak, erregistratzeke daudela, BFAk egindako kontabilizazio-gomendioak jarraikiz.

#### Axpeko mendi-magala egonkortzea

2018ko urrian, Udalak eta Sprilur SAK hitzarmen bat sinatu zuten Udalak Sprilur SAREN aurka hasitako erreklamazio-prozedura hitzarmen bidez amaitzeko, izan ere Udalak hainbat kostu jasan behar izan zituen, Axpeko poligonoan aldameneko mendi-hegalaren ezezonkortasunaren ondorioz izandako kalteen ondorioz.

Horren arabera, Udalari dagokio mendi-hegala egonkortzeko proiektu teknikoaren exekuzioa kontratatzea, baita obrak behar bezala egiteko legezko xedapen bidez nahitaez esku hartu behar duten fakultatiboena ere. Finantzaketari dagokionez, hitzarmenak agintzen

du bi kontzeptuak % 50ean finantzatu dituztela alde sinatzaileek: obraren exekuzioa (ikus 1. espedientea A.12.1ean) eta ordainsari profesionalak. Halaber, Sprilur SAK Udalarri dagozkion kostuak ere aurreratzea aurreikusten da, sozietatearen aldeko industria erabilerako edo hirugarren sektoreko balio baliokideko lurzati eraikigarrien lagapenaren truke, % 50etik gorako ekarpen ekonomikoaren konpentsazio gisa.

Hona hemen Udalak egindako gastuak eta Sprilur SAK jasotako finantzaketa, laburtuta:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2019	2020	GUZTIRA
Obraren exekuzioari dagozkion gastuak.....	2.897	3.437	6.334
Ordainsari profesionali dagozkien gastuak.....	120	281	401
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>3.017</b>	<b>3.718</b>	<b>6.735</b>
SPRILUR SA-REN EKARPENENGATIKO SARRERAK	3.017	3.673	6.690
JASOTAKO FINANTZAKETA SOBERAKINA	1.508	1.814	3.322

## A.5 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2019ko eta 2020ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioan, LZn jasotako lanpostu kopurua eta 2020ko abenduaren 31ko plantilla:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ. AITORT. 2020	OBLIGAZ. AITORT. 2019	LANPOSTU KOP. 20/12/31	
			LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak.....	410	317	E/E	8
Behin-behineko langileen ordainsariak.....	159	116	4	3
Funtzionarioen ordainsariak .....	7.647	7.544	167	(1) 181
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	722	719	45	24
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak .....	1.751	1.590	E/E	35
Gizarte Segurantzza .....	2.709	2.685		
Elkarkidetzak.....	284	284		
Aldez aurreko erretiroengatiko kalte-ordainak .....	-	98		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	266	326		
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>13.948</b>	<b>13.679</b>	<b>216</b>	<b>251</b>

(1) bitarteko 89 funtzionario barne hartzen ditu.

## Ordainsariak

Udalbatzak, 2020ko uztailearen 30ean, langileen ordainsariak % 2 igotzea eta % 0,3ko igoera orokor gehigarria aplikatzea erabaki zuen, berariazko osagarriak modu ez-linealean aldatuz; hori guztia 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta sektore publikoaren esparruan ordainsarien gaitan premiazko neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritakoaren arabera.



## Plantillaren bilakaera

2020ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Udalkideak.....	1	-
Behin-behineko langileak.....	1	-
Karrerako funtzionarioak .....	-	(1) 8
Bitarteko funtzionarioak .....	52	45
Lan kontratu finkoko langileak.....	-	(2) 1
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	19	63
<b>GUZTIRA</b>	<b>73</b>	<b>117</b>

(1) 3 lan ezgaitasun iraunkor eta 5 erretiro, horietako 4 aurreratua.

(2) Erretiroa.

2020ko ekitaldian, dedikazio eskusiboa duten zinegotzien kopuruak gora egin du, oposizioaren estatutua arautzen duen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Behin-behineko langileei dagokienez, Alkatetzaren 2020ko otsailaren 13ko Dekretuaren bidez hutsik dauden lanpostuetako bat betetzeko pertsona bat izendatu da, aholkularitza bereziko eginkizunak beteko dituen, martxoaren 2tik aurrerako ondorioekin.

Aldi baterako lan-kontratuko langileen bajei dagokienez, horietatik 47, 2019ko abenduan Lanbidek finantzaturako enplegu-planen bidez kontratatutako langileei dagozkie. 2020an ez da horrelako planei lotutako langile-kontrataziorik egin, Udalak ekitaldi horretan kudeaketa zeharka egitea hautatu duelako (ikus 5. eta 6. espedienteak A.12.1ean).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Hona hemen kapitulu honetan erregistraturiko kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	OBLIGAZ. AITORTUAK
<b>Errentamenduak</b>	<b>347</b>	
Edukiontzien hornidura (erosketa aukeradun errentamendua) (1) .....	93	
Beste errentamendu batzuk .....	254	
<b>Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza</b>	<b>763</b>	
Azpiegitura eta ondasun orokorrak .....	230	
Eraikin eta bestelako eraikuntzak .....	338	
Beste ibilgetu bat .....	195	
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>86</b>	
<b>Hornidurak</b>	<b>1.177</b>	
Energia elektrikoa.....	661	
Gasa .....	147	
Garbiketa produktuak .....	119	
Bestelako hornigaiak .....	250	
<b>Komunikazioak</b>	<b>147</b>	
<b>Garraioak</b>	<b>1</b>	
<b>Aseguru-sariak</b>	<b>102</b>	
<b>Hainbat gastu</b>	<b>1.480</b>	
Birkokatze gastuak (ikus A.10) .....	(2) 560	
Jarduera soziokulturalak .....	412	
Bestelako hainbat gastu.....	508	
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b>	<b>11.689</b>	
Bide garbiketa eta HHSen bilketa .....	2.615	
Mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko egoitza eta eguneko zentroak .....	1.994	
Udal eraikinen eta aretoen garbiketa eta higienizazioa.....	1.703	
Udal parke, lorategi eta berdeguneak mantentzea, kontserbatzea eta garbitzea .....	827	
Garbiguneetan hondakinen tratamendua eta gordailua .....	821	
Kirol-jarduerak eta zerbitzu osagarriak kirol-bulegoetan.....	672	
Udalerrian hiri-garraioa .....	371	
2020rako tokiko enplegu planen deialdian sartutako proiektuen kudeaketa .....	258	
Herriko argien eta semaforoan instalazioak kontrolatzea, mantentzea eta kontserbatzea .....	242	
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta arreta psikosoziala haurrekin, gazteekin eta familiarekin.....	194	
Oinarrizko Lanbide Heziketako programaren kudeaketa.....	180	
Udalaren informatika eta komunikazio sistemen zerbitzu integrala .....	175	
Ludoteka eta aisialdi aktiboko zerbitzua adinekoentzat .....	160	
Edukiontzien mantentze-lanak (1).....	157	
Betearazpen aldiaren diru-bilketaren kudeaketan laguntza tekniko-juridikoa emateko zerbitzua....	154	
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk .....	1.166	
<b>Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak</b>	<b>89</b>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>15.881</b>	

(1) Bi prestazioak kontratu bakar bati dagozkio.

(2) Zati bat, 65.851 euro, autofakturaioari dagokio (ikus A.8).



## A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2020ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBAT.
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	<b>285</b>
Suteak itzaltzeko foru zerbitzuari ekarpena (*) .....	221
Talde politikoei transferentziak (*) .....	64
<b>IZENDUNAK</b>	<b>195</b>
Erandioko musika banda: 2020ko jardueren garapena (*) .....	42
Erandio Club Kirol Elkartea: 2020ko jardueren garapena (*) .....	30
Giza Garapenerako Klaretar Elkartea Sortarazi: esku-hartze sozialeko programak (*) .....	25
Beste txikiago batzuk (12 onuradun) .....	98
<b>LEHIA</b>	<b>874</b>
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (*) .....	525
Ezohiko laguntzak Covid-19ak eragindako krisiak jotako ostalaritza-sektorearentzat (*) .....	70
Kultura Saileko dirulaguntzak (*) .....	52
Udalaren gizarte-larrialdietarako laguntzak (*) .....	47
Hezkuntza arloko dirulaguntzak .....	45
Kirol alorreko dirulaguntzak .....	34
Beste txikiago batzuk (11 dirulaguntza lerro) .....	101
<b>ZUZENAK</b>	<b>187</b>
Erandio Bonoa 2020 kanpaina berezia (*) .....	141
Beste txikiago batzuk (4 onuradun) .....	46
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.541</b>

(\*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.



## A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA ONDARE SARRERAK

Hona hemen 2020an inbertsio errearen kapituluan kontabilizatutako kontzeptuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	OBLIGAZ. AITORTUAK
<b>Lursailetan inbertsioak</b>	<b>132</b>
<b>Azpiegitura eta urbanizazioa</b>	<b>4.259</b>
Axpeko industri poligonoko mendi magala egonkortzea (*).....	3.718
Beste txiki batzuk .....	541
<b>Inbertsio proiektuak eta azterlanak</b>	<b>10</b>
<b>Eraikinak eta bestelako eraikuntzak</b>	<b>1.136</b>
Kultura-ekipamenduak: .....	632
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak .....	289
Beste txiki batzuk .....	215
<b>Makineria, instalak. eta tresneria</b>	<b>8</b>
<b>Altzariak eta tresnak</b>	<b>28</b>
<b>Informazio prozesuetarako ekipoak</b>	<b>11</b>
<b>Bibliografia funtsak</b>	<b>17</b>
<b>Aplikazio informatikoak</b>	<b>26</b>
<b>Hiri espazioen urbanizazioa</b>	<b>22</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.649</b>

(\*) Ikus obra nagusiari dagokion espedientearen analisia A.12.1. atalean.

2020ko ekitaldian, gainera, ondasun higiezinaren errentei dagozkien eskubide aitortuak jaso dira, xehakapen honen arabera:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBAT.
Akarlanda zerbeza fabrikaren kanona .....	21
Erandiogoikoa 2 zk. lursailaren errentamendua.....	36
Udal etxebizitzaren errentamendua (*).....	79
<b>ONDARE SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>136</b>

(\*) Zatirik handiena, 65.851 euro, autofakturaioari dagokio, Udalak bere gain hartu beharreko birkokatzeen kostuari (ikus A.6).

## A.9 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinasunaren xehakapena:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2017 eta lehen.	2018	2019	2020	GUZTIRA
Zerga zuzenak .....	3.264	214	214	339	4.031
Zeharkako zergak .....	418	1	78	198	695
Tasak eta bestelako sarrerak.....	2.523	304	177	312	3.316
Transferentzia arruntak .....	-	-	-	119	119
Ondare-sarrerak.....	1	-	-	-	1
Inbertsio errealen besterentzea.....	-	-	-	658	658
Kapitalezko transferentziak .....	9	-	-	108	117
<b>AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA</b>	<b>6.215</b>	<b>519</b>	<b>469</b>	<b>1.734</b>	<b>8.937</b>
<b>Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak</b>					<b>(7.711)</b>
<b>AURREKONTUKO ZORDUN GARBIAK GUZTIRA</b>					<b>1.226</b>

Udalak nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak (abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 48.6 artikulua, BLHren toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa). Gainera, bilketari buruzko datu historikoetan oinarrituta, zalantzazko kobragarritzat jotzen dituzte 2019ko eta 2020ko ekitaldietan jatorria duten behar bezala aitortutako eskubideak, hurrenez hurren % 100 eta % 29.

## A.10 ERAGIKETA EZ-AURREKONTUKOAK

Hona hemen izaera aurrekontuan ez sarrera ez gasturik eragiten ez duten eragiketengatik kobratu edo ordaindu beharreko kontuen xehakapena 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ZENBAT.
<b>ZORDUN EZ AURREKONTUKOAK</b>	<b>149</b>
Eragindako BEZarengatik zordunak.....	138
Bestel. zordun ez aurrekontukoak.....	11
<b>HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK</b>	<b>3.890</b>
Hainbaten gordailuak (*).....	2.088
Jasotako fidantzak eta gordailuak .....	635
PFEZagatik Ogasun Publiko hartzekoduna .....	504
Kanporatzeagatik kalte-ordainak .....	237
Urbanizazio-kuotak .....	157
BEZ kontzeptuan Ogasun publiko hartzekoduna.....	145
Gizarte Segurantza hartzekoduna.....	52
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak .....	72
<b>APLIKATZEKO DAUDEN KOBRANTZAK</b>	<b>341</b>

(\*) Saldoaren zati bat, 1,7 milioi euroena, 2008ko urtarrilaren 4ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartutako "D" – Playabarri sektorea urbanizatzeko proiektuan aurreikusitako obrei aurre egiteko bildutako kuotei dagokie. Proiektu hori gauzatzeke dago.

### Kanporatzeagatik kalte-ordainak

2007ko urtarrilean, Erandioko familia batzuk beren etxebizitzetatik atera behar izan zituzten, izan ere kalte larriak jasan zituzten inguruko orubeetan egindako eraikuntza-lanen ondorioz.

2010eko abenduaren 2an, Udalak, ezohiko Udalbatzan, kaltetutako jabeekin sinatu beharreko konpromisoen dokumentua onartu zuen, higiezin horiek birjartzeko eta bizilagunak behin betiko birkokatze garatu beharreko jarduketei buruzkoa. Horren arabera, kaltetutako jabeek konpromisoa hartu zuten lurzorua eta higiezinaren gaineko hirigintza-eskubide guztiak lagatzeko, hirigintza-jarduketa garatu ahal izateko, bai eta kalte-galderen kalte-ordain gisa haien alde aitortutako diru-kopuru eta eskubide guztiak ere. 0) Bi konpromiso horiek hartzeko, kaltetutako jabe guztiei edo horien kausadunei etxebizitza edo lokal berri bat eman behar zitzairen.

Udalbatza berean onartu zen Azpiegitura SA sozietatearekin Esparru-akordio bat izenpetzea eraginpeko hirigunearen inguruan hirigintzako berroneratze-ekimen bat garatzeko. Akordioaren aurreikuspenen arabera, alderdiek hirigintza-hitzarmen bat sinatu zuten gero eta horren bidez, Udalak konpromisoa hartu zuen eremuan definitutako irabazi izaera zuten lurzati eraikigarri guztiak doan lagatzeko; halaber, sozietate publikoak bere gain hartu ziren kaltetutako jabeek etxebizitzak eta lokalak emateko konpromisoa.

Aurrez aipatutako konpromisoen agirian xedatutakoa aplikatuta, Udalak 6 milioi euro jaso zituen kalte-ordainengatik eta aurrekontuko hartzekodunen kontu batean erregistratu ziren. Saldo hori murriztuz joan da aurrekontuan diru-sarrera modura egotzi den heinean,

atxikitako taulan ikus daitekeen moduan: Etxeen jabeak birkokatzeagatik kontabilizatutako gastuak ere jaso dira:

EKITALDIA	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE AITORT.	BIRKOKATZE GASTUAK
2012 .....	1.600	1.562
2013 .....	520	464
2014 .....	480	413
2015 .....	520	656
2016 .....	193	174
2017 .....	75	10
2018 .....	-	101
2019 .....	1.808	551
2020 .....	567	560
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.763</b>	<b>4.491</b>

Taulan jasotako gastuez gain, 2019ko otsailean, Alkatetzaren dekretu bidez, 1,3 milioi euroan ezarri zen Udalak berak beste gastu batzuegatik eta udal-ondasunetan izandako kalteengatik jaso beharreko zenbatekoa, udal-teknikariek horretarako egindako balorazioaren arabera. Zenbateko hori kontuan hartuta, 2020ko ekitaldiaren itxieran 14.170 euroren finantzaketa-desbideratze positiboa dago, eta 236.634 euroren diru-sarrerak egotzi gabe daude.

## A.11 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Erandioko udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioak 1990eko apirilaren 5eko eta 1992ko martxoaren 13ko foru-aginduen bidez onartu ziren behin betiko, eta arau horien testu arauemailea 1993ko ekainaren 4ko BAOn argitaratu zen. Ondoren, Arau Subsidiarioen aldaketa puntualak onartu dira, bai eta zenbait garapen-tresna ere.

2013ko abenduan, HAPO idazteko laguntza teknikoko kontratua sinatu zen horretarako deitutako lizitazio-prozesuaren enpresa esleipendunarekin. HAPOren Aurrerapenaren dokumentua, zegokion Ingurumen Azterlan Estrategikoarekin batera, jendaurrean jarri zen 2018an, urtarrilaren 12an eta martxoaren 8an BAOn iragarkiak argitaratuta, gerora bestelako izapiderik egin gabe. Aipatzekoa da 2021eko irailean amaitzen dela plan orokorrak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko 15 urteko epea, behin betiko onespena emanda.

## 2. jarduketa-eremua urbanizatzeko proiektua

2. jarduketa-arearen birpartzelazio-proiektua 2004ko uztailan onartu zen behin betiko, eta bertan jasotako birpartzelatze-eragiketen erregistro-inskripzioa urte bereko azaroan egin zen. Bestalde, “2. Jarduketa-arearen eta alboko kaleen urbanizazio-proiektua” 2006ko urtarrilaren 13ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. Urte horretako otsailean, lurzoruen titular nagusia zen merkataritza-sozietateak aipatutako eremuan



hirigintza-sustapen bat egiteko lizentzia lortu zuen, eta eraikina lehen aldiz okupatzeko lizentzia lortzeko ezinbesteko baldintza zen aurretik Udalak proiektu horretan zehaztutako obrak amaitu eta jasotzea. Sozietateak, halaber, 1,8 milioi euroren abala jarri zuen urbanizazio-obrak aldi berean gauzatuko zirela bermatzeko.

Lizentzian aurreikusitako eraikinak amaituta eta okupatuta dauden arren, urbanizazio-obrak zati batean baino ez ziren egin. 2018ko abuztuko Alkatetzaren Dekretuaren bidez, ordaintzeke zeuden obrak ordaintzeko zenbateko jakin batzuk ordaintzeko eskatu zen, urbanizazio-proiektu berri bati buruzkoak, nahiz eta ebazpen hori abenduaren 18ko dekretu berri baten bidez zuzendu zen, planteatutako berraztertze-errekurtsoa partzialki onartu ondoren. Alkatearen azken dekretu horrek ordaindu beharreko zenbatekoen kalkulua jatorrizko urbanizazio-proiektuari gehitzea onartu zuen, eta sozietateak ordaintzeke zeuden obregatik ordainketak ez egiteko emandako argudioak baztertu zituen, baita abala itzultzeko eskea ere. Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko beharrezkoa zen zegokion balorazio teknikoa lortzea. Dekretu horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen.

2020ko ekainaren 5ean, Alkatetzaren dekretu berria ebatzi eta 796.190 euro ordaintzeko eskatu zen, udal teknikariek egiteke zeuden obren kuantifikazioan oinarrituta. Dekretu horren aurka, sozietateak zabaldu egin du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkeztutako demanda.

BEZaren zenbateko garbia, 658.009 euro, sarrera gisa kontabilizatu da 2020ko ekitaldiko aurrekontuko inbertsio errealak besterentzeko kapituluan.



## A.12 KONTRATAZIOA

### A.12.1 2020KO EKITALDIAN INDARREAN ZEUDEN KONTRATUEN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, Udalak 38,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 7 kontraturen lagin bat hartuta:

#### AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

KONTRATUAK	ESLEIPENA			GASTUA 2020	AKATSAK	
	DATA	PROZED.	ZENBAT.		A	B
<b>OBRAK</b>						
1. Axpeko industri poligonoko mendi-magala egonkortzea .....	mai-19	Larrialdia	6.354	3.437		B1
<b>ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA</b>						
2. Bide garbiketa eta HHSen bilketa.....	api-09	Irekia	18.187	2.615		B2
<b>ZERBITZUAK</b>						
3. San Jose egoitzan mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko egoitza eta eguneko zentroak .....	abe-15	Irekia	6.295	1.871		A5
4. Udal eraikinen eta aretoen garbiketa eta higienizazioa .....	urr-18	Irekia	6.606	1.651		A1,4,6
